

**“A-14 Loidibarren HIEko 1. EUari dagozkion P6 partzelaren eta partzela mugakideen urbanizazio osagarriako (I. fasea)” obrak prozedura irekiaren bidez, urgentziazko tramitazioz, eskaintza ekonomikoki onuragarrienari eta adjudikazioko hainbat irizpiderekin kontratatzeko deialdia**

**1. Entitate adjudikatzailea:**

- a) Erakundea: Lasarte-Oriako Udala
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Obrak eta Hirigintza Departamentua
- c) Espediente zenbakia: 11/01

**2. Kontratuaren xedea:**

- a) Xedearen deskripzioa: “A-14 Loidibarren” HIEko 1. EUari dagozkion P6 partzelaren eta partzela mugakideen urbanizazio osagarria (I. fasea).
- b) Lotekako dibisioa: Ez
- c) Obrak egiteko lekua: “A-14 Loidibarren” HIEko 1. EUari dagozkion P6 partzela eta mugakideak.
- d) Obrak burutzeko epea: hiru hilabete eta erdi, zuinketa egiaztatzeko aktaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**3. Adjudikatzeko tramitazioa, prozedura eta forma:**

- a) Tramitazioa: Urgentziazkoa
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Forma: Eskaintza ekonomikoki onuragarriena, adjudikatzeko hainbat irizpide.

**4. Lizitazioko aurrekontu oinarritzkoa:**

- a) Zenbateko totala: 419.541,67.-€ (BEZa sartu gabe) eta 75.517,50.-€ Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak.
- b) Obren finantziazioa:  
“Urbaniz. Osagarria A-14 Loidibarren (P-6) I. Fasea” izeneko 1.0802.60101.51120 kontu-sailaren kargura finantzatuko da obra.

**5. Bermeak:**

- a) Behin betikoa: adjudikazioko zenbatekoaren % 5.

**6. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:**

- a) Entitatea: Obrak eta Hirigintza Departamentua.
- b) Helbidea: Ganbo Kalea 1.
- c) Herria: 20160 Lasarte-Oria.

- d) Telefonoa: 943-376189
- e) Faxe: 943-376190
- f) e-maila: hirigintza@lasarte-oria.org
- g) Informazioa eskuratzeko azken eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.

#### 7. Kontratastaren betebeharrak espezifikak.

C TALDEA	6. AZPITALDEA	c) KATEGORIA
C TALDEA	2. AZPITALDEA	c) KATEGORIA
I TALDEA	6. AZPITALDEA	b) KATEGORIA

#### 8. Proposamenak aurkeztea.

- a) Aurkezteko azken eguna: hamahiru egun natural, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.  
Eskaintza zigilatuak postaz igortzen ahalko dira, Klausula Administratibo Partikularren Agiriko 20. artikulua ezarritakoaren arabera.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Ikus Klausula Administratibo Partikularren Agiria.
- c) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarreraren Erregistroa.

#### 9. Eskaintzak irekitzea.

- a) Lekua: Lasarte-Oriako kontzeju-etxeko bilkura-gelan.
- b) Udalaren iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko den iragarpenean zehazturiko lekuan, egunean eta orduan.

#### 10. Bestelako informazioak

##### Adjudikatzeko irizpideak

##### **A. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak**

- Prezioa, **25 puntu**. Lizitazioko oinarrian beherantz hobetzea. Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkeztu duen proposamenari esleituko zaio puntu-kopuru maximoa, eta 0 puntu lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamenari; gainerakoak, berriz, interpolatu egingo dira.
- Denbora guztian Lasarte-Oriako pertsona langabetuak eta Enpleguko Zerbitzu Publiko batean eskaintza generikoa aurkeztearen bidez hautaturikoak kontratatzea, **40 puntu**.
- Lasarte-Oriako pertsona langabetuak kontratatzeaz den bezainbatean, obrak hasterakoan aurkeztuko da enplegu publikoko zerbitzu batek kudeaturiko eskaintza generikoaren bidez eginiko hautaprosesuari dagokion dokumentazioa, zeina

Udaleko enplegu-dinamizatzailleak aztertuko eta informatuko baitu, kontratua betetzearen ondorioetarako.

## **B. Balio-irizpen baten arabera ponderatzekoak diren irizpideak**

- Obra zehatzaren memoria eta lanen programa, obraren Planingean zehaztuko delarik obrarekin sorrarazten diren afekzioak, **20 puntu**.  
Era berean, obrak gauzatzen diren bitartean afekzioak minimizatuko dituen trafiko alternatiboaren estudioa aurkeztu beharko du, ebaluatua izateko.
- Obrari esleituriko pertsonala, haren kualifikazio profesionala eta funtzioak zehaztuko direlarik. Obrako ekipoa sartuko da kide bat zeinaren lana izango baita obrak sorrarazten dituen afekzioez informatzea eta haiek koordinatzea (zirkulazio-etenaldiak eta lehendik dauden instalazioei eragindako afekzioak, aldeztu aurretik herritarrei iragarrita), **15 puntu**.

Obren proiektua Copilasarte kopialegian eskura daiteke (Lasarte-Oriako Kale Nagusia 34 – 1. behe; telefonoa: 943.36.69.30 ), eta Klausula Administratiboen Agiria Obrak eta Hirigintza Departamentuko bulegoetan edo webgunean: [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org).

## **11. Kontratatzaillearen profila**

<http://www.lasarte-oria.org/kontratazioa>

Lasarte-Orian, 2011ko ekainaren 14an,  
Alkateak,